

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2022ko martxoa

Aurkibidea

1. Merkataritza eta zerbitzuak
2. Inflazioa
3. Kanpo merkataritza
4. Enpresen konfiantza
5. Sentimendu ekonomikoa
6. Batzordearen aurreikuspenak
7. Hilabeteko laburpena

Eranskina

1. Salmentek gora egin zuten nabarmen 2021ean

Hala eta guztiz ere, ez zen lortu 2019ko mailara itzultzea.

2. Inflazioak geldiarazi egin du azken hilabeteetako goranzko joera

Baina azpiko inflazioa urte arteko %2,6an dago kokatuta jada.

3. Esportazio ez-energetikoen pandemia aurreko maila berreskuratu dute eta errekor berria ezarri dute.

Frantzia eta Alemania izan ziren EAEko esportazioen helmuga nagusiak.

4. Ekonomiaren jarduerak gora egin zuten Europan otsailean.

Euroaren eremuko PMI indize konposatua azken bost hilabeteetako mailarik altuenean kokatu zen.

5. Europako sentimendu ekonomikoak hobera egin zuten otsailean.

Enpleguari buruzko igurikimenez daturik gorena markatu zuten Europar Batasunean.

6. Neguko motelaldiaren ondoren hazkundea bizkortzea espero da.

Europako Batzordeak beherantz zuzendu du 2022ko aurreikuspena, eta igo egin du 2023koa.

7. Hilabeteko laburpena.

Gerrak baikortasuna hoztu dezake.




ZERBITZUEN KOIUNTURA INDIZEA

Salmentek gora egin zuten nabarmen 2021ean

MERKATARITZA INDIZEA EUSKADIN

Urteko batez besteko balioa

2021EKO HAZKUNDEA
%6,0




Eustatek argitaratutako datuen arabera, EAEn merkataritza %6,0 hazi zen 2021. urtean, aurreko urtearen aldean. Gorakada garrantzitsu horri esker, atzean geratu da 2020an erregistratutako %7,4ko beherakada handia, COVID-19ak eragindako krisiari aurre egiteko hartutako murrizketek hiru azpisektoreak, hots, handizkako merkataritza, txikizkako eta ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa, uzkurto zituztean.

2021ean, normaltasunera itzultzeari esker, handizkako merkataritza %9,3 hazi zen eta txikizkako merkataritza, berriz, %3,6. Autoen salmentak, ordea, ez zuten bilakaera onik izan. Txipen eskasiak oso nabarmen oztopatu zituen salmentak, eta maila minimoetara jaitsi ziren. Gainerako azpisektoreek portaera ona erakutsi zuten arren, oraindik ez da pandemia aurreko jarduera maila berreskuratu.


HANDIZKAKO MERKATARITZA INDIZEA

Urteko batez besteko balioa




TXIKIZKAKO MERKATARITZA INDIZEA

Urteko batez besteko balioa



ZERBITZUEN INDIZEA. GUZTIRA


Urteko batez besteko balioa



Gainerako zerbitzuetako salmentek ere gora egin zuten 2021ean. Sektoreka aztertuta, garraioko eta biltegitratzeko salmentek (%16,7) eta ostalaritzakoek (%16,2) gorakada handia eskuratu zuten. Neurritsuagoak izan ziren, baina baita positiboak ere, jarduera administrati- boen eta zerbitzu osagarrien (%5,0), zientifiko- en eta teknikoek (%2,0) sektorean izandako gehikuntzak, eta, azkenik, informazioan eta komunikazioetan lortutakoak, baina %0,5era mugatu zen. Horren guztiaren balantze gisa, zerbitzuen sektoreko salmentak %9,3 igo ziren 2021ean, 2020an izandako %16,7ko jaitsieratik urrun.


ZERBITZUEN INDIZEA. GARRAIOA

Urteko batez besteko balioa




ZERBITZUEN INDIZEA. OSTALARITZA

Urteko batez besteko balioa



ZERBITZUEN INDIZEA. INFORMAZIOA


Urteko batez besteko balioa



Iturria: Eustat

ZERBITZUEN INDIZEA. ZERBI. OSAGAR.

Urteko batez besteko balioa




INFLAZIOA

Inflazioak geldiarazi egin zuen azken hilabeteetako goranzko joera

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



KPIak balio altuak jasotzen jarraitzen du Euskadin, baina azken hilabeteetan apur bat apaldu da, %6,0ra iritsi arte. Zehazkiago, abenduarekin alderatuta, lau hamarren jaitsi zen tasa, batez ere argindarraren prezioa aurreko hilekoetan baino gutxiago igo zelako, nahiz eta beste behin ere osagai hori izan zen prezioak gehien igo zituen.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2020	2021	2022ko urtarrila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	-0,1	3,1	6,0	6,0
Azpiko inflazioa (%79,5)	0,8	1,0	2,6	2,0
- Elikagai landuak (%15,8)	1,7	1,4	4,3	0,7
- Industria ondasunak (%22,7)	0,3	1,0	3,2	0,7
- Zerbitzuak (%41,0)	0,8	0,7	1,6	0,6
Hondar inflazioa (%20,5)	-4,0	12,1	19,5	4,0
- Landu gabeko janariak (%9,3)	4,0	2,6	5,0	0,5
- Energia (%11,2)	-9,4	21,3	32,6	3,5


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



Beraz, nahiz eta urtearen hasieran inflazioa zertxobait moteldu den, 2021ean elektrizitatearen prezioaren igoerek eragindako oinarri efektuaren ondorioz, gainerako produktu talde askok igoerekin jarraitu zuten. Hori baieztatuta geratu da azpiko inflazioaren igoera ikusita, izan ere, aurreko %2,2tik urtarrileko %2,6ra igo baita. Inflazio handiena izan duten taldeen artean, etxebizitzarena nabarmendu behar da, aurreko

hilaren aldean 5,1 puntu murriztu bazen ere, argindarraren merkatzeari esker, urte arteko tasa %19,0an kokatu baitzen. Inflazioan goranzko eraginik handiena izan zuen beste taldeetako bat garraioa da, %10,6ko hazkundearekin, erregaien hazkundearen ondorioz, petrolioaren prezioa upeleko 100 dolarretik gorakoa izan baitzen. Azkenik, elikagaien prezioek 2008tik izandako baliorik handienak markatu zituzten.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2022ko urtarrila

	Euskadi	Espania	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	6,0	6,1	5,1
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	5,0	4,8	3,9
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,0	1,6	2,2
Jantziak eta oinetakoak	3,3	3,7	-0,2
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	19,0	18,1	11,9
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	4,2	2,9	2,8
Osasuna	0,8	0,9	0,8
Garraioa	10,6	11,3	9,4
Komunikazioak	-0,6	-0,6	-0,4
Aisia eta kultura	0,9	1,2	2,8
Hezkuntza	1,7	1,2	-0,9
Jatetxeak eta hotelak	2,5	2,9	4,1
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	2,7	1,9	1,9

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.



Esportazio ez-energetikoen pandemia aurreko maila berreskuratu eta errekor berria ezarri dute


ESPORTAZIO EZ-ENERGETIKOAK

Urte arteko aldakuntza tasa

ESPORTAZIO EZ-ENERGETIKOAK.

2021

%22,0



Ez pandemiaren azken olatuek, ez mikrotxipen krisiak ez zuten lortu EAEko esportazioak galgatzea, %23,0 hazi baitziren 2021ean, eta 25.665 milioi euroetara iritsi ziren guztira, 2018an lortutako gehieneko zenbatekoaren 133 milioi euro azpitik bakarrik. Gorakada garrantzitsu horrek finkatu egin ditu EAEko guztizko salmentak, eta dinamismoan gaintu egin du Europar Batasunak eta euroguneak erregistratutakoa, bi kasuetan bertako esportazioak %17,1 hazi baitziren.

Energiaz bestelako esportazioek bilakaera are hobea izan zuten. Zehazkiago adierazita, 2021ean salmenta ez-energetikoa 24.300 milioi eurotik gorakoa izan ziren, aurrekaririk gabeko kopurua baita, eta horrek %22,0ko igoera ekarri zuen 2020ko mailarekin alderatuta.

Beste aldetik, inportazio ez-energetikoa ere maximoetan kokatu ziren eta 16.500 milioi euro ingurukoak izan ziren. Horren guztiaren ondorioz, saldo ez-energetikoa 7.808 milioitik gorakoa izan zen.


ESPORTAZIO EZ-ENERGETIKOAK

Milioi euro

ESPORTAZIO EZ-ENERGETIKOAK.

2021

24.300,3



ESPORTAZIOAK HELMUGAREN ARABERA. 2021

Herraldea	%
Frantzia	%16,1
Alemania	%15,9
Erresuma Batua	%6,6
AEB	%6,2
Belgika	%5,3
Italia	%5,3
Herbehereak	%5,0
Portugal	%4,4
Txina	%2,6

Badirudi EAEko produktuak gero eta gehiago fokatzen ari direla Europako merkatuan; izan ere, lehen aldiz, esportatutako guztiaren %63,5 baino gehiago bereganatu zuen merkatu horrek, eta saldo superabitario handiari eutsi dio. Frantzia, %16,1eko merkatu kuotarekin, EAEko esportazioen helmuga behinena izan zen, eta bere nagusitasuna berreskuratu zuen, 2020an Alemaniaren alde (%15,9) galdu ondoren. Bestalde, munduko zati handi batean gertatzen den bezala, saldo defizitik handiena Txinari egokitu zitzaion, 322 milioi euro baino gehiago, EAEko eragileen hirugarren

ESPORTAZIOEN BANAKETA. 2021


Arantzel taldea	%
Ekipamendu ondasunak	%45,3
Makinak eta aparatuak	%19,3
Garraio materiala	%25,9
Ohiko metalak eta manuf.	%23,9
Plastikoa eta kautxua	%7,1
Nekazaritzako produktuak	%5,8
Produktu mine.eta energetikoak	%5,7
Produktu kimikoak	%3,3
Papera	%2,7

hornitzailea baita, eta Euskadin erosten duenaren bikoitza baino gehiago saltzen baitie.

Adar esportatzaile nagusiei dagokienez, ekipamendurako ondasunen esportazioa %13,3 hazi zen, neurri handi batean automobilen salmentak bultzatuta. Izan ere, epigrafe horrek, nahiz eta urtearen azken txanpan hain zigortuta egon osagairik ezagatik, bere salmentak %17,3 handitzea lortu zuen. Metal arruntek eta horien manufaktuek, beste salmenta talde handia baita, %34,1eko hazkunde bikaina izan zuten.

INPORTAZIO EZ ENERGETIKOAK


Milioi euro



Iturria: Eustat

SALDO EZ ENERGETIKOAK

Milioi euro





ENPRESEN KONFIANTZA


Ekonomiaren jarduerak gora egin zuen Europan otsailean

Euroaren eremuko PMI indize konposatua 55,8 mailara igo zen otsailean, azken bost hilabeteetako maximoa baita. Horrek adierazten du omikron aldaera iritsi zenean hedatu zen ezkortasun erlatiboa atzean geratzen ari dela, horri aurre egiteko onartu ziren murrizketak lasaitu ahal. Era berean, produktu batzuk hornitzeko eza gutu diren zailtasunak murriztu egin dira azken aldietan.


Jarduera sektoreen arabera, enplegurako PMIak dinamismo handia erakutsi zuen, 58,4ko datuarekin, aurrekoaren oso antzekoa. Entregen atzerapenen murrizketak eta eskarien igoera handiak azaltzen dute sektorearen une on hori. Zerbitzuen PMIak hainbat puntu hobetu zituen, 55,8ra arte, pandemia kontrolatzeko neurriak arintzearen ondorioz. Sektoreak datozen hilabeteetarako dituen igurikimenak nabarmen hobetu dira.

PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA


2022KO OTSAILA
55,8




MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA



ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA




PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




Jardueraren hobekuntza otsaileko datua duten Europako herrialde nagusietan ikus daiteke. Alde batetik, Alemaniak 56,2 punturaino areagotu zuen bere erritmoa, sei hilabetetan izandako baliorik altuena baita, zerbitzuen suspertzeari esker, enbriak zertxobait moteldu ziren arren. Frantziaren kasua ere deigarriagoa da, zerbitzuen adierazlea punturik altuenean kokatu baita lau urtetan (57,9), enbriaren ere iguera handia izan duen bitartean.

Europatik kanpo, Erresuma Batuak indar handia erakusten du, baita AEBek ere, baina Japoniak bere geldotasuna areagotu du.


PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. JAPONIA



Iturria: Markit



EKONOMIAREN SENTIMENDUA


Europako sentimendu ekonomikoak hobera egin zuen otsailean

SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROGUNEA

2022KO OTSAILA

114,0

Otsailean, Europako Batzordeak argitaratzen duen sentimendu ekonomikoaren adierazleak hobera egin zuen aurreko datuarekin alderatuta, eta 2021eko abenduan zuen egoerara itzuli zen jada, Europako zenbait herrialdetan omikron aldaera azkar hedatu aurretik zegoen egoerara, alegia. Zehatzago esanda, eurogunearen kasuan indizea 114,0 puntura igo zen, eta Europar Batasunean, berriz, 112,8 puntukoa izan zen.




Oro har, zerbitzuen sektorea suspertu egin dela hautematen da, aurreko bi hilabeteetan okerrera egin baitzuen. Industriak, berriz, oso tonu onean jarraitzen du. Era berean, eraikuntzak eta txikizkako merkataritzak ere dinamismo aipagarria erakusten dute, serieko balio maximoetatik oso hurbil. Azkenik, enpleguari buruzko igurikimenak bikainak dira, eta Europar Batasunean hilabete horretan lortu zuten balio historiko handiena.


SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROPAR BATASUNA

2022KO OTSAILA

112,8




SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA




Oro har, Euroguneko herrialde guztiek erakutsi zuten adierazleak hobera egin zuela otsailean. Alemaniaren kasuan, indizea puntu bat baino gehiago igo da eta 113,5era iritsi da, zerbitzuen eta eraikuntzaren bultzadari esker, horiei txikizkako merkataritza gehituz. Frantzian, baikortasuna txikizkako merkataritzaren eskutik dator, eta industriak tonu hobea erakutsi du. Herrialde horretan, kontsumitzailearen konfiantza nahiko baxua da, ordea.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




Italiak puntu bat igo zuen indizea otsailean, 111,6ra arte, bere maximotik urrun. Alderdi positiboen artean, zerbitzuen susperraldi handia eta eraikuntzaren bultzada nabarmentzen dira, eta, aitzitik, familien konfiantza okertu da. Azkenik, Espainiak bi puntu baino gehiago hobetu du sentimendu ekonomikoa, eta 111,3ko mailan kokatu da, industriaren eta eraikuntzaren bilakaera onari esker. Zerbitzuak ere egoera onean daude.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA



SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA




Iturria: Europar Batzordea.

EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPENAK

Neguko motelaldiaren ondoren hazkundera bizkortzea espero da

EUROPAR BATASUNAREN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023


Europako Batzordeak neguko txostenean argitaratutako aurreikuspenen arabera, Europar Batasunaren hazkundera %4,0 eta %2,8 izango da 2022an eta 2023an, hurrenez hurren. Euroaren eremuak, berriz, %4,0ko eta %2,7ko aldakuntza tasa izango du urte horietan. 2022an espero baino hazkunde txikiagoarekin hasi ondoren, urte arteko tasak beherantz berrikusi dira urte horretarako, baina 2023rako zuzenketa goranzkoa izan da. Omicronen hedapena, eskaintzaren botila lepoak eta inflazioaren presioak bezalako arazoak direla eta, duela hilabete batzuk espero baino hazkunde ez hain dinamikoa aurreikusten da orain.

BPG. EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

%	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2021	2022	2023	2022	2023
Europar Batasuna	5,3	4,0	2,8	-0,3	+0,3
Eurogunea	5,3	4,0	2,7	-0,3	+0,3
Alemania	2,8	3,6	2,6	-1,0	+0,9
Belgika	6,1	2,7	2,2	+0,1	+0,3
Espania	5,0	5,6	4,4	+0,1	0,0
Frantzia	7,0	3,6	2,1	-0,2	-0,2
Italia	6,5	4,1	2,3	-0,2	0,0
Herbehereak	4,3	3,0	2,7	-0,3	+1,1
Portugal	4,9	5,5	2,6	+0,2	+0,2
Irlanda	13,7	5,5	4,5	+0,4	+0,4
Grezia	8,5	4,9	3,5	-0,3	-0,1
Austria	4,7	4,3	2,3	-0,6	+0,4

ALEMANIAKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

FRANTZIAKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

Europako Batzordearen aurreikuspenen arabera, egungo aurpegi haizeak koiunturalak izango dira eta 2022an zehar desegingo dira. Horrek, lan merkatuaren hobekuntzarekin, aurrezki tasa altuarekin, finantza baldintza onekin eta Europarako suspertze planarekin batera, hedapen fase iraunkor eta sendoa sustatuko du. Hala ere, arriskuak beherantz doaz oraindik. Pandemiaren bilakaerari buruzko ziurgabetasunak eta Europa ekialdeko tentsio geopolitikoek Europako agertoki makroekonomikoa baldintzatuko dute.

LANGABEZIA TASA. EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

%	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2021	2022	2023	2022	2023
Europar Batasuna	2,9	3,9	1,9	+1,4	+0,3
Eurogunea	2,6	3,5	1,7	+1,3	+0,3
Alemania	3,2	3,7	2,1	+1,4	+0,4
Belgika	3,2	4,3	1,3	+2,0	-0,3
Espainia	3,0	3,6	1,1	+1,5	+0,4
Frantzia	2,1	2,8	1,7	+0,7	+0,3
Italia	1,9	3,8	1,6	+1,7	+0,2
Herbehereak	2,8	4,0	1,4	+1,8	-0,1
Portugal	0,9	2,3	1,3	+0,6	+0,1
Irlanda	2,4	4,6	2,5	+1,5	+1,0
Grezia	0,6	3,1	1,1	+2,1	+0,7
Austria	2,8	3,3	2,2	+0,8	+0,2

Iturria: Europar Batzordea.



Gerrak baikortasuna hoztu dezake

Europako Batzordeak otsailean aurkeztu ditu bere neguko aurreikuspenak. Beraietan, 2022ra-ko hazkundera apur bat beherantz berrikusi du eta datorren urterakoa, ordea, igo egin du. Analisisian, nabarmendu du Europako ekonomiaren bilakaera baldintzatuko duten hiru gaiak pandemiaren bilakaera, ekoizpen kateetako botila lepoak eta inflazioaren igoera izango direla. Horiei Ukrainan bizi diren gerra gehitu behar zaie. Elementu horiek zaildu egiten dituzte aurreikuspenak egiteko ariketak. Printzipioz, faktore horiek iragankorrak izango dira, eta **2022aren hasiera uste baino makalagoa izan den arren, udaberritik aurrera hedapen sendoa lortuko da**, lan merkatuaren egoera onari, aurrezki tasa handiari, finantza baldintza onuragarriari eta Europako funtsei esker.

Ildo horretatik doaz duela gutxi argitaratutako PMI indizeak. Izan ere, datu pare bat beherantz kateatu ondoren, **Euroguneko indize konposatua 55,8 puntura igo zen otsailean, azken bost hilabeteetako baliorik altuenera**, alegia. Igoera garrantzitsu horren arrazoia COVID-19ari eusteko neurrien erlazazioa da, bereziki zerbitzuei mesede egiten dielako. Sektore hori 50. baliotik gertu zegoen, geldialdia adierazten baitu maila horrek, eta 55,8ra arte hobetu da, hedapen handia adierazten duena. Bestalde, manufakturek dinamismoari eusten diote eta hornitzaileen entrega denboren murrizketa nabarmentzen dute, botila lepoak, nabarmenak izaten jarraitzen duten arren, konpontzen ari direla iradokitzen baitu. Datuak dituzten herrialde guztietan ikusten da ekonomiaren suspertze hori.

Jardueraren hobekuntza kanpo bultzadarekin lotuta dago eta European errekorrak ezarri dituzten esportazio zifretan. Hain zuzen ere, Europar Batasunak, Euroguneak, Alemaniak, Italiak eta Espainiak 2021ean esportatu zuten balioa handiena izan zen gutxienez 2010etik, hau da, estatistika hasi zenetik. Euskadiren kasuan, **esportazioen hazkundera oso handia izan zen bai abenduan (%27,1) bai urte osoan (%23,0)**, eta guztizkoak 2018ko zifra (maximo historikoa) gainditu ez bazuen ere, asko hurbildu zen horretara. Hala ere, esportazio ez-energetikoen emaitza serieko handiena izan zen, eta produktu energetikoen salmenta, berriz, 2018aren erdia izan zen 2021ean. Frantzia eta Alemania dira oraindik EAEko produktuen helmuga nagusiak.

Azkenik, azpimarratu behar da **EAEko merkataritzak bultzada handia lortu zuela 2021ean, nahiz eta ez zen nahikoa izan pandemiaren aurreko balioak berreskuratzeko**. Zehazki, merkataritza %6,0 hazi zen urte osoan, eta 2019ko marka berdintzetik bi puntura geratu zen. Bilakaera oso positiboa izan zen handizkako merkataritzan eta txikizkakoan, baina globalari kalte egin zion ibilgailuen salmentaren jaitsierak, ez hainbeste eskariaren faltagatik, baizik eta saltzeko prest zeuden unitateen faltagatik, erdieroaleen horniduren atzerapenagatik. Gainerako zerbitzuetan, garraioaren bilakaera ona nabarmentzekoa da.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2020		2021		
			IV	I	II	III	IV
BPG	-9,9	5,5	-8,1	-2,9	18,6	3,9	4,5
Barneko azken kontsumoa	-8,9	—	-7,0	-2,5	18,1	2,4	—
Familien kontsumoa	-12,4	—	-10,6	-3,7	22,6	2,1	—
Administrazioaren kontsumoa	3,8	—	6,5	1,6	5,2	3,5	—
Kapital eraketa gordina	-11,7	—	-8,5	-1,3	21,4	3,7	—
Barne eskaria	-9,6	—	-7,4	-2,2	18,9	2,7	—
Esportazioak	-16,1	—	-13,8	-2,4	30,1	12,5	—
Inportazioak	-15,4	—	-12,5	-1,4	29,8	10,2	—
Lehen arloa	-15,0	—	-28,1	-7,1	7,8	4,6	—
Industria eta energia	-11,2	—	-6,8	-1,1	30,2	5,5	—
Eraikuntza	-8,2	—	-6,5	-2,4	11,5	1,3	—
Zerbitzuak	-9,0	—	-7,7	-3,5	15,5	4,0	—
Balio erantsi gordina	-9,5	—	-7,6	-2,9	18,4	4,2	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-13,6	—	-12,8	-3,0	20,4	1,9	—
Enplegua	-7,7	5,2	-5,9	-2,1	16,6	3,5	4,3

ABENDUKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2021		2022				2022
	IV	2021	I	II	III	IV	
BPG	4,6	5,6	6,2	6,4	7,1	6,8	6,7
Barneko azken kontsumoa	3,8	5,1	5,5	5,4	6,0	6,0	5,7
Familien kontsumoa	3,9	5,6	6,2	6,2	7,1	6,9	6,6
Administrazioaren kontsumoa	3,5	3,4	3,1	2,9	2,5	2,9	2,8
Kapital eraketa gordina	4,6	6,4	6,0	6,9	7,3	6,7	6,7
Barne eskariaren ekarpena	4,1	5,7	5,8	6,1	6,6	6,4	6,3
Kanpo eskariaren ekarpena	0,5	-0,1	0,4	0,3	0,4	0,4	0,4
Lehen arloa	4,4	2,2	7,8	-0,2	8,5	9,8	6,2
Industria	5,1	8,7	6,1	6,3	7,2	6,6	6,6
Eraikuntza	1,7	2,7	3,2	5,1	6,9	5,9	5,2
Zerbitzuak	4,7	4,8	6,4	6,6	7,0	6,9	6,7
Balio erantsi gordina	4,6	5,5	6,1	6,4	7,1	6,8	6,6
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	4,4	5,5	6,5	6,5	7,1	7,0	6,8
Lanaldi osoko lanpostuak	3,7	5,0	3,7	3,1	3,2	3,5	3,4
Landunak (BJA)	1,8	1,5	2,2	1,2	0,7	0,7	1,2

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023		2022	2023
Laboral kutxa	6,3	—	BBVA	5,3	4,5
Confebask	5,9	—	Hispalink (BEGren aldak.)	5,3	—
CEPREDE	5,4	3,7			

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2020		2021		
			IV	I	II	III	IV
BPG	-10,8	5,0	-8,8	-4,3	17,7	3,4	5,2
Kontsumo pribatua	-12,2	4,7	-10,1	-6,3	23,6	2,7	2,4
Kontsumo publikoa	3,3	3,0	4,7	3,8	3,7	3,1	1,3
Kapital finkoaren eraketa gordina	-9,5	4,1	-5,7	-2,6	18,5	-0,6	3,7
- Aktibo finko materialak	-10,5	3,8	-6,3	-2,9	21,0	-1,7	2,3
- Eraikuntzan	-9,6	-3,0	-8,8	-9,7	9,2	-6,7	-2,8
- Ekipamendu ondasunetan	-12,9	15,5	-2,6	8,7	46,1	6,1	10,3
- Jabetza intelektualaren produktuak	-4,3	5,6	-2,8	-1,3	7,9	5,5	10,4
Nazio eskaria (ekarpena)	-8,6	4,6	-6,5	-3,0	17,4	2,5	3,6
Esportazioak	-20,1	13,4	-15,3	-7,3	39,4	14,8	15,8
Inportazioak	-15,2	12,8	-9,5	-3,8	38,9	12,2	11,1

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022		2021	2022
AFI	5,0	6,0	Intermoney	5,2	6,2
Axesor	4,7	5,5	Mapfre Economics	4,9	5,5
BBVA	5,1	5,5	Oxford Economics	4,9	5,5
CaixaBank	4,8	5,5	Repsol	4,8	5,2
Cámara de Comercio España	4,7	5,5	Santander	4,8	5,8
Cemex	4,8	5,6	Metyis	4,7	5,2
CEEM-URJC	4,9	6,1	Universidad Loyola Andalucía	5,1	4,7
CEPREDE-UAM	5,2	6,7	Consenso (batez bestea)	4,9	5,6
CEOE	4,8	5,0	Gobernua (2021-07)	6,5	7,0
Equipo Económico (Ee)	4,7	5,3	Espainiako Bankua (2021-12)	4,5	5,4
FUNCAS	5,1	5,6	Europar Batzordea (2021-11)	4,6	5,5
ICAE-UCM	5,0	5,9	NDF (2022-01)	4,9	5,8
IEE	4,6	5,2	Consensus Forecast (2022-02)	—	5,7

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: Analistas Financieros Internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, BBVA, CaixaBank, CEOE: Confederación Española de Organizaciones Empresariales, Comisión Europea, FUNCAS, Espainiako Bankua, CEPREDE, Consensus Forecast, Axesor, Cámara de Comercio España, CEEM-URJC, Cemex, Equipo Económico (Ee), ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Oxford Economics, Santander, Universidad Loyola Andalucía eta Metyis.

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2020		2021		
			IV	I	II	III	IV
AEB	-3,4	5,7	-2,3	0,5	12,2	4,9	5,6
Txina	2,0	8,1	6,4	18,3	7,9	4,9	4,0
Japonia	-4,6	1,8	-0,8	-1,8	7,3	1,2	0,7
Kanada	-4,9	4,9	-3,1	0,3	11,8	4,0	3,4
Europar Batasuna	-5,9	5,2	-4,1	-1,1	13,8	4,1	4,8
Eurogunea	-6,4	5,2	-4,4	-1,1	14,4	3,9	4,6
Alemania	-4,6	2,8	-2,9	-2,8	10,4	2,9	1,4
Frantzia	-7,9	7,0	-4,3	1,7	19,0	3,5	5,4
Erresuma Batua	-9,4	7,5	-6,4	-5,0	24,6	7,0	6,5
Italia	-8,9	6,8	-6,4	-0,3	17,3	4,0	6,4
Herbehereak	-3,8	4,8	-3,1	-2,3	10,7	5,1	6,1

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2022KO OTSAILA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2022	2023	2022	2023	2022	2023
AEB	3,7	2,5	5,2	2,6	3,7	3,5
Japonia	2,8	1,8	1,0	0,7	2,6	2,5
Kanada	3,9	3,1	3,7	2,3	5,8	5,6
Europar Batasuna	3,9	2,7	3,5	1,9	—	—
Eurogunea	3,9	2,5	3,9	1,7	7,1	6,9
Alemania	3,5	2,7	3,4	1,9	5,2	5,0
Frantzia	3,8	2,1	2,6	1,5	7,7	7,5
Erresuma Batua	4,3	2,0	5,4	2,7	4,3	4,2
Italia	4,1	2,3	3,6	1,3	9,2	8,8
Espainia	5,7	3,6	3,8	1,5	—	—
Herbehereak	3,2	2,2	4,4	1,9	—	—

Iturria: Consensus Forecast.